

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5535

1541/2024 EBAZPENA, azaroaren 12koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, argitara ematen da eranskinean Ospitaleko Erradiofisika kategorian (Fak. Esp. Ospitaleko Erradiofisikako Teknikari-Medikuaren lanpostu funtzionala) sartutako txanda irekiko esleipendunen izendapena, pertsonal estatutario finko gisa. Destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan daude.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko 2018an eta 2019an deitutako hautaketa prozesuen oinarri orokorrak onartu ziren (2021eko abenduaren 14ko 248. zk. EHAAan argitaratu ziren).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 15eko 891/2022 Ebazpenaren bitartez, Ospitaleko Erradiofisika kategorian (Fak. Esp. Ospitaleko Erradiofisikako Teknikari-Medikuaren lanpostu funtzionala) lotura estatutarioa lortzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoa onartu ziren, kategoria horretako destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun zerbitzuetan izanik (2022ko apirilaren 5eko EHAA 68. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 23ko 119/2024 Ebazpenaren bidez, hautatutako hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu ziren, Ospitaleko Erradiofisika kategorian (Fak. Esp. Ospitaleko Erradiofisikako Teknikari-Medikuaren lanpostu funtzionala) txanda irekikoena, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen zerbitzu-erakundeetan izanik (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen web orrian argitaratu zen, 2024ko urtarrilaren 26an).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 23ko 140/2024 Ebazpenaren bidez, eranskinean jasota dauden txanda irekiko esleipendunak langile estatutario finko izendatzen dira, Ospitaleko Erradiofisika kategorian (Fak. Esp. Ospitaleko Erradiofisikako Teknikari-Medikuaren lanpostu funtzionala), destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik (2024ko otsailaren 6ko EHAA 27. zk.).

Lanpostuaz jabetzeko ezarritako epea amaituta, txanda irekiko izangaiei oinarri orokorretako 16.7 oinarrian aurreikusitakoaren arabeko destinoak eskainiko zaizkie.

Oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatu beharko zaio destinoen esleipen- eta hautapen-prozesu honi; betiere, txanda irekian parte hartzen dutenen artean eta lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera eginez esleipena.

Ezin izango zaie atal honetan eskainitako destinorik esleitu, baldintzak bete arren destino guztiak ez aukeratzeagatik aurreko fasean destinorik lortu ez dutenei.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarreko legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean jasotako izangaiak, Ospitaleko Erradiofisika kategorian (Fak. Esp. Ospitaleko Erradiofisikako Teknikari-Medikuaren lanpostu funtzionala), txanda ireki bidez, estutu-

peko langile finko izendatzen direla EHAAn argitara dadin agintzea. Destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan izango dute.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendaritza nagusian (Egoitza zentrolean) hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzemate bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikotik hala eskatzen denean.

– Diziiplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziiplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaraten ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatu-tupeko pertsonal gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 12a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2024ko abenduaren 4a, asteazkena

ERANSKINA

OSAKIDETZAREN LAN-ESKAINTZA PUBLIKOA 2018-2019

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: FAK. ESP. OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO TEKNIKARI-MEDIKUA

TXANDA: TXANDA IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***2990**	Puertolas Hernandez, Jose Ramon	Ezker.-Enkar. -Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Ospitaleko Erradiofisikako Unitatea - Ospitaleko Erradiofisikako Unitatea - Ospitaleko Erradiofisikako Unitatea / Guruzetako Unibert. Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2